



# ENPRESEN konfiantza

2018KO 2. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa


## 2018KO 2. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK



## 0 | INGURUNEA


LABORAL Kutxak Enpresen Konfiantzari buruzko inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei, 2018ko bigarren hiruhilekorako dituzten aurreikuspenen berri izateko. Bada, inkestak ondorio interesgarriak eman ditu, aurreko hiruhilekotik hobekuntza sumatu baita. Jarraian, ondorio nagusien laburpen txikia eskainiko dizuegu.

Enpresek ingurune ekonomikoari buruz dituzten aurreikuspenen arabera, % 57,2k uste du egoerak bere horretan jarraituko duela, eta % 36,4k hobetu egingo dela. Beraz ikuspegi baikorra da nagusi, eta, geroago ikusiko dugunez, aztertutako gainerako aldagai guztietan ere islatzen da baikortasuna.




# 1 FAKTURAZIOA

Enpresek fakturazioari buruz dituzten aurreikuspenak aldekoak dira, 2018ko bigarren hiruhilekoari begira. Hala, enpresen % 50,2ren iritziz, fakturazioan ez da aldaketarik egongo, eta % 42,4ren ustez, hobera egingo du. Beraz, fakturazio txarragoa aurreikusten duten enpresak % 7,4 baino ez dira.




## 2 | JARDUERA

Aurreko adierazlearekin bat, eta 2018ko bigarren hiruhilekoan aurreikusten den jardueraren bilakaeraren aurrean, % 55ek uste du ez dela aldaketarik egongo, eta % 38,8k hobera egingo duela. Laginaren % 6,1ek baino ez du uste jarduerak okerrera egingo duela.




## ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, honako zalantza hau sortu zaigu: fakturazioa eta jarduera hobetuko dela uste dutenek gehiago saltzea ala garestiago saltzea espero dute? Emaitzek diote eskabideen bolumena hobetzeko aurreikuspen argia dagoela. Ondoren agertzen den irudian ikus daitekeenez, inkestari erantzun diotenen % 50,5ek uste du bolumenean ez dela aldaketarik egongo, eta % 42,1ek hobera egingo duela. Enpresen % 7,4k baizik ez du uste eskabideen bolumenak behera egingo duela.




## 4 | PREZIOAK

Prezioei dagokienez, ordea, egonkor jarraituko dutela uste dute gehienek; izan ere, elkarrizketatuen % 78k uste du prezioek berdin jarraituko dutela bigarren hiruhilekoan. Gainerako enpresetatik, % 13,6k uste du prezioak handiagoak izango direla, eta gainerako % 8,4k, berriz, txikiagoak izango direla.



## 5 | ERRENTAGARRITASUNA

Eragiketen errentagarritasunari buruzko aurreikuspeni erreparatuta, erantzunen % 70,6ren arabera berdin jarraituko du; enpresen % 17,8k uste du handiagoa izango dela eta % 11,7k errendimendu txikiagoa lortuko duela.






## 6 | INBERTSIOA


Orain arte azterturiko datuen arabera, egoera nahiko positiboa da, eta, ondoren ikusiko dugun bezala, badirudi enpresek ahalmen produktiboa eta, ondorioz, langileen kopurua handitzeko asmoa dutela.

Inbertsio-bolumenari dagokionez, enpresen % 73,1ek uste du eutsi egingo diola 2018ko bigarren hiruhilekoan, eta % 18,8k, berriz, inbertsio-bolumenak gora egitea aurreikusten du. Horrenbestez, gainerako % 8,1ak uste du behera egingo duela.



## 7 | ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 70,9k erantzun du enpleguan ez dela aldaketarik izango, % 23,9k langile-taldea handitzeko aurreikuspena du eta % 5,2k guztiz kontrakoa, plantilla murriztu egingo duela.




2018KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



## 8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazleak (inguruneari buruzko iritzia izan ezik) gehituta eta haztatuta, **61,7ko** konfiantza-indizea atera zaigu. Horrek esan nahi du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta gorakada bat izan dela, orduko hartan **56,8ko** balioa lortu baitzen. Interpretazioa hauxe da: enpresek ikuspegi baikorragoa dute ekonomiaren bilakaerari buruz, 2018ko bigarren hiruhilekoari begira. Gainera, indizearen balioa 50etik gora dagoenez, hedatze-eremuan gaude, beste eremu geografiko interesgarri batzuetan lortutako datuekin bat. Espainian, esaterako, 56,7ko datua lortu zen urtarrilean, eta Eurogunean 57,5koa otsailean.

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan izandako emaitzak aurkeztuko ditugu, aurretik azaldutako indizearekin zerikusirik ez dutenak. Azken urteko esportazioen bilakaerari dagokionez, inkestaren % 58,4k uste du bere horretan jarraitu duela eta % 22,1ek hobera egin duela. Aitzitik, % 19,5en iritzian, kanpoko salmentek txarrera egin dute.




## 9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean berrikuntzari edo I+Gko ekimenei bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestaturen % 68,7 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 0,5 artean, eta % 7,1eko kopuru interesgarri batek, berriz, % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horretara.




## 10 BEZEROEI KOB RATZEKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 77,8rentzat, bezeroei kobratzeko epean ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta enpresen % 15,2ren esanetan, epea luzatu egin da . Hala, enpresen % 7,1ek soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



## 11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

Amaitzeko, inkestaturen % 68,4k erantzun du bankuen finantzaketa eskuratzeko aukerak berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresen artean, % 24,6k dio hobetu egin dela, eta % 7,1ek lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.






2018AN ADIERAZLEAK IZAN DUEN  
BILAKAERAREN LABURPEN-GRAFIKOA



## 12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK


Grafiko honetan, aztertu ditugun azken bi hiruhilekoetako aurreikuspenen adierazle partzialen eta osoen balioak ikus daitezke.



## 13 | Industria-sektorearen portaera

Ondorengo grafikoan, Industriaren Balio Erantsi Gordinaren (BEG) portaeraren aurreikuspena ikus daiteke 2018rako, urtetik urterako balioetan. Labur esanda, sektorearen BEGa % 2,7koa izango dela aurreikusten da.

**Industria-sektorearen Balio Erantsi Gordina: 2018ko bilakaeraren zenbatespena, urtetik urterako balioetan**



# Fitxa teknikoa eta metodologia

---

EAEko 400 enpresari egin zaie inkesta.

---